

## Iturria irekitzearen ondorioak itsas mailan

Urteko 1,8 mm-ko igoeraren % 42ren erantzulea da uraren erabilera, batez ere, akuiferoen hustuketaren ondorioz

Urtero 1,8 mm igotzen da itsas maila batez beste mundu osoan. Igoera hori zatikatuz gero, 1,1 mm-ko igoeraren erantzuleak oso ezagunak dira: ozeano beroagoak izatearen ondoriozko uraren espantsioa, eta lehorreko izotz-masak urtea. Falta diren 0,7 milimetroen atzean gizakiok zuzenean erabiltzen dugun ura dagoela argitaratu dute *Nature Geoscience* aldizkarian Tokyoko Unibertsitateko ikertzaileek. Zehazki, ekarpen horren ia dena akuiferoen hustuketatik datorrela ondorioztatu dute: 1961. eta 2003. urteen artean izandako itsas mailaren igoeraren % 42 egotzi diote uraren biltegitatze eta fluxu globalak simulatzen dituen eredu baten bidez egindako azterketan.

Ikertzaileak ere harritu ditu edateko, industriarako eta ureztatzeko baliatzen dugun uraren ekarpena hain handia izatea itsas mailaren igoeran. Izan ere, lehenago egindako beste azterketa batzuetan jo izan

da parekoak zirela akuiferoen esplotazioaren gehikuntza eta presa bidezko biltegitatzearen kenketa.

Hain justu, oso antzeko ondorioen berri eman du Utrecht-eko Unibertsitateko ikerketa-talde batek *Geophysical Research Letters* aldizkarian. Haien kalkuluen arabera, hamasei aldiz handitu da akuiferoen hustuketak itsas mailaren igoerari egindako ekarpena 1900. eta 2000. urteen artean: urteko 0,035 milimetrokoa zen XX. mendearen hasieran, eta 0,57 mm-koa amaieran.

Bi ikerketa-taldeek baliatutako datuen iturriak eta simulazioak desberdinak izan dira, eta biek aitortu dituzte mugak. Hala ere, norabidea garbi erakusten dute, eta lurpeko uren erabilerrari buruzko neurketa zorrotzagoak egiteko beharra nabarmendu dute, emaitzak berretsi eta ondorioetan sakondu ahal izateko. ●

## Koloneko eta ondesteko minbiziaren aurka, odol-analisia lagun

Odolean dauden zenbait markatzaile genetikoren emaitzetan oinarrituta koloneko eta ondesteko minbizia detektatzeko aukera ematen duen diagnostiko-kit bat garatu dute.



ARG.: © GAIKER-IK4

Nazioartean patentatzeko bidean dago diagnostikorako metodo berri hori, eta Gaiker-IK4 zentro teknologikoak EHUko Informatika Fakultateko Sistema Adimendunen Taldearekin, Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko Onkologia sailarekin eta BIOEF erakundearekin elkarlanean garatzen diharduen ikerketa baten emaitza da.

Diagnostikorako test berria odol-analisi arrunt batean datza, eta gaixotasuna hasierako faseetan detektatzen eta koloneko eta ondesteko minbiziak eragiten dituen heriotza-tasak gutxitzen lagunduko du. Izan ere, koloneko eta ondesteko minbizia garaz detektatzen bada, oso erraz tratatzen da, eta sendatzeko probabilitatea oso handia da. Gertatzen dena da tumore horrek ez duela inolako minik sortu ohi, harik eta gaixotasuna oso aurreratuta egon arte. ●



ARG.: TROPIKOETAKO NEKAZARITZAREN NAZIOARTEKO ZENTROA (CIAT) BY-SA.